

SEIGARREN TITULUA

"MODULUEN" ARAU PARTIKULARRAK

4.- BUENAVENTURA.

Azalera: 6,582 ha.

A- Irizpideak eta helburuak:

«Modulu» hau proposamenak dituen helburu orokorren barruan izango da, parkearen goiko aldean erabilera eta gozamen publikoko gune bat eratzen bukatu ahal izateko. Toki horretan, dena den, ezaugarri geologiko garrantzitsuak dira, eta zuzendu egin behar dira han sortutako inpaktuak. Hala eta guztiz ere, ez da betelan handirik egitea aurreikusten, eta harrobia berreskuratzeoan sortuko diren horma bertikalei tratamendu berezia ematea proposatzen da, bai paisaiaren aldetik, bai eta segurtasun-baldintza aldetik ere. Zelai edo ordoki samarrak diren plataformak, ordea, finkatu egingo dira, gune libre batzuk mendebaldera begira jarrita, interes bereziko bistekin.

Hala ere, planteatzen dena da bateragarriak izatea azken helburua eta orain den erauzketa-jarduera egiten segitzea. Horretarako, idatzitako meatze-barrutiaren proiektua, ekimenaren ezaugarriak eta helburua, eta gaiaren arabera eskumena duten administrazioen gogoetak jakinik, 2010. urtera arte meatze-barrutiaren proiektuan aurreikusitako baliabideak ustiatzea planteatzen da. Dena dela ere, ustiapenarekin batera egingo dira itxitako eremuak bere onera ekartzeko lanak, lehen esandako egunetik hasi eta bi urte baino lehenago egin ere.

Bere onera ekartzeko proiektuak inpaktuak murrizteari heldu behar dio bereziki. Baina, lehen ere esan denez, ez da betelan handirik egiterik izango horretarako. Murko edo maila batzuk egin behar dira, harrobien desnibela gainditzeko eta harririk erortzeko arriskurik ez izateko hartara. Era berean, basoberritzea ere proposatuko da, eta horren helburu nagusia lurzorua babestea eta egonkortzea izango da, bai eta toki itzalak sortzea ere. "Modulu" honetatik kanpora, ustiatzearen ekialdeko eremua nekazaritzarako eta abeltzaintzarako erabiltzeko berreskuratzea ere aurreikusiko du bere oneratze proiektuak.

Bi aparkaleku ere izango dira eremuan, Pelegriñe aldetik igotakoentzat bat eta Astigarraga aldetik igotakoentzat bestea. Ekipamendu, instalazio eta azpiegitura eraikin batzuk ere hartu ahal izango ditu "moduluak", baimendutako erabilerak egiteari ezinbestean lotuta izan behar diren jarduerak egin ahal izateko: aisialdi jarduerak, epe luzean, eta erauzte jarduerak, epe labur eta ertainean. Beste erabilerarik ez da libre, ordea; bereziki industria-erabilerarik. Salbuespena lehen den hormigoi-planta izango da, eta erauzketa-erabileraren denbora-muga berarekin hura ere.

B.- Hirigintza araubide partikularra:

Baimendu egiten dira lehen ziren erauzketa-erabilerak; ez, ordea, 5* kategoriako industria-erabilerak. Horrenbestez, onartu egingo da erabilera horiekin lotutako eraikin berria, dagokion administrazio sektorialak ezartzen dituen baldintzetan, betiere. Berriz aipatzen da hormigoi-plantaz adierazitako salbuespena.

Baimen hori 2010. urtera arte izango da, eta beste bi urte luzatu ahal izango da bere oneratze proiektuan eskatzen diren bere oneratze lanak egiteko. Lan horiek dokumentu honetan jarritako irizpideetara egokitu behar dira nahitaez. Adierazitako epea pasatutakoan, lurzorua erabilera eta jabari publikorako eskuratzeari ekin behar zaio, eta aldapa handirik gabeko gune libreetarako jarri,


eta han libre izango da ekipamendu eraikin batzuk jartzea. Sabai azalera 1.200 m²(s) izango da gehienez ere.

Eremua antolatzeko proiektu bat idatziko da. Proiektu horrek plan berezi honetan jarritako irizpideak garatu behar ditu, eta harrobia bere onera ekarri ondoren hura erabilera publikorako moduan jartzeko egin behar diren obrak egiteko bidea eman behar du. Aparkaleku bat ere hartuko du eremuak, plan honetan jarrita den gutxieneko zuzkidura izango duena.

C- Grafikoa:

Hona hemen antolaketaren grafikoa, 1:5.000 eskalan egina.

MODULO DE BUENAVENTURA



ESCALA: 1/5.000

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
APARCAMIENTOS
de 5 a 10 plazas
18 JUN 1999
APROBACION DEFINITIVA
EHIN ETIKO ONARPENA
30 plazas

de 50 a 80 plazas
18 JUN. 1999
Posibilidad de estacionamiento de autobuses

FRONDOSAS

CONIFERAS

Puntos de actuacion singular

PLAN ESPECIAL DE ORDENACION
"PARQUE DE LAU-HAIZETA"